

Euskal AEko ondasun esportazioak %17,5 gehitu ziren 2017ko irailean; ez-energetikoak %13,3

2017ko lehen bederatzi hiletan, azken 10 urteetako esportazio baliorik handiena

Euskal AEko **ondasun esportazioak** %17,5 gehitu ziren 2017ko irailean, Eustaten arabera. Guztira, 2.112 milioi; iazko aldi berean 1.797. Ondasun energetikoen esportazioak %76,7 gehitu dira aurreko urtearen aldean; ez-energetikoenak %13,3. Esportazioak %22,6 gehitu **Bizkaian**; %14,9 **Gipuzkoan**; %13,5 **Araban**.

Euskal AEko esportazioak, 17.710 milioi 2017ko **lehen bederatzi hiletan**, 2016koan baino %10,2 gehiago, azken 10 urteetako baliorik handiena. **Araban** %6,6 gehitu; **Bizkaian** %19,5; **Gipuzkoan** %3,2; 2016ko urtariletik irailera bitartekoarekin alderatuta.

Ondasun-inportazioak %27,4 gehitu, 1.637 milioira. Inportazio energetikoak %79,5 gehitu; ez-energetikoak %16,1. Inportazioak %31,1 gehitu **Bizkaian**; %22,3 **Gipuzkoan**; %24,2 **Araban**.

2017ko **lehen bederatzi hiletan**, 2016koen aldian, inportazioak %22,9 gehitu dira, 13.897 milioira.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2017, Iraila

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2016	2017	Δ %	2016	2017	Δ %
C.A. DE EUSKADI	1.797.467	2.111.786	17,5	1.285.590	1.637.275	27,4
PRODUKTU ENERGETIKOAK	119.494	211.136	76,7	227.847	409.045	79,5
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.677.973	1.900.650	13,3	1.057.744	1.228.229	16,1
ARABA / ÁLAVA	566.837	643.583	13,5	331.819	412.175	24,2
BIZKAIA	705.462	864.920	22,6	668.670	876.441	31,1
GIPUZKOA	525.167	603.282	14,9	285.102	348.659	22,3

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62